

**Pedro Maria Otaño Barriola,  
(Zirzurkil, 1857 – Argentina, 1910)**

Zuri begira tristetu zaizkit  
alai neuzkiyan begiyak.  
Oik nola diran bire luzian  
korritzen duten zubiyak,  
oraindik anbat gerta liteke  
juntatutzia gu biyak.

Bertsoa ez da Pello Mari Otañorena<sup>1</sup>. Izan zitekeen, bai azalaz eta bai mamiaz. Baina Txirritarena da: Txirritak egindako agurra da, Pello Marik hirugarren eta azkeneko aldiz Ameriketarako ontzia hartu zuenean, Pasaian, 1898ko urtarrilaren 26an. Egun hartantxe bete zituen Pello Marik berrogeita bat urte. Artean, hogeita hamazazpi zituen Txirritak.

Batez ere, tristura dario bertsoari: “Zuri begira tristetu zaizkit alai neuzkiyan begiyak”. Baina baita esperantza ere, edo ametsa agian: “Oik [begiak] nola diran bire luzian korritzen duten zubiyak, oraindik anbat gerta liteke juntatutzia gu biyak”. Hala ere, ez dirudi esperantza handiko ametsa denik Txirritarrena.

Lehendik, Ameriketari bi aldiz izana da Pello Mari, eta bietan itzuli zen. Beraz, bi aldiz itzuli zena, zergatik ez da etorriko hirugarrenean ere?

---

<sup>1</sup> Txosten honek, funtsean, oinarri-oinarrizko obra bat dut iturri: Antonio Zavalaren *Pedro M. Otaño eta bere ingurua* (Oartzun: Sendoa, 1993. Bi liburuki: Ausporen Sail Nagusia 6, 7). Eta, horren osagarri, batik bat beste hiru lan ere baliatu ditu egileak: Juan Mari Lekonaren “Pedro Mari Otaño: Lore-Jokoetako poeta bat Hegoaldean” (in, *Antoine d’Abbadie 1897-1997*. Donostia-San Sebastián: Congrès International, Ezohiko kongresua. Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia: 523-534; 1998), Hernandorena Kultur Taldearen *Oroimena. Pello Mari Otañoren arnasa (1857-1010)* (plazaratzeaz) eta Pello Esnalen “Pedro Mari Otaño: Errekaldeko izarra” (plazaratu gabea). Idatzi honek, bere izaeragatik, ez darama beste oin-oharrik.

Hala ere, alde handia dago aurreko bi joanaldien eta hirugarren honen artean. Gogo txarrez joan zen lehenengoan, gerratik ihesi seguruenik. Pello Marik berak aipatzen du bertso batean, asko zehazten ez badu ere:

Argatik gerok batere kulpik  
ez gendubela ezertan,  
txit urrutira joan biarra  
izandu nuben batetan;  
oso gazterik arkitu nintzan  
Amerikako Panpetan.

Ez. Ez zen gogo onez joango; baina, gutxienez, berak hartuko zuen joateko erabakia. Bigarren aldian, berriz, bere borondatez doa. Halaxe aitortzen du behintzat berak:

Amerikara nua  
nere borondatez,  
aspertu naizelako  
emengo suertez.

Hirugarren honetan, ordea, beharrak darama. Beharrak derrigortuta doa, beste bertso batean esaten digunez: beharrak behartuta; ezinbestez, derrigorrean. Baina bada besterik ere. Lehen, bakarrik joan zen; eta bakarrik dabilenak beti errazagoa du lekuz aldatzea. Orain, ordea, emazte Malenekin eta hiru seme txikirekin doa. Seme zaharrenak –Bernardok– ez ditu oraindik sei urte; txikienak –Josetxok–, bi ere ez; tartekoak –Migelek– hiru.

Ez nua borondatez,  
bearrak narama,  
nerekin daramazkit  
iru ume ta ama.

Pasaian azken agurra emateko bildu den jendetzak ere ikusten du Pello Mariren sufrimendua. Hain da agerikoa eta minbera! Oroitzapen gogor hark zulatzen du urte batzuk geroago ere, Jeronimo Elizegi bertso-jartzailea:

gogoratzen naiz nola joan ziñan  
negarrez urtzen Pasaitik,  
o, modu artan ez det ikusi  
sekulan aurraren aitik.

Ez da harritzekoa Txirritaren tristura. Ezta haren etsipena ere, nahiz eta ez dizkion ate guztiak ixten amets itxaropentsuari.

Baina kezka eta zalantzak ez dira Txirritarenak bakarrik. Herri baten oihartzun dira, azken batean. Ez da gutxiagorako. Izan ere, betiko galdutzat jo behar al dugu halako bertsolaria eta halako poeta? Haren "Mutil kokkor bat itsuaurreko" eta "Txepetxa" bertsoekin etsi behar al dugu? Ez ote du jarraipenik izango *Zerbait* liburuak? Betiko galdu behar ote dugu horrelako bertsolari baten jario ezti eta gozoa? Errekaldetarren kasta hortxe etenda, ondorengo bertsolaririk gabe geldituko ote dira, soilik katearen mailarik gorenak aipatzearren, Errekalde Zaharra (1803-1883), Joxe Bernardo Otaño (1842-1912) eta Pello Mari bera (1857)?

Herri oso baten minari, jende azti eta argiarena erantsi behar zaio: Ameriketara doa Pedro Mari Otaño, noiz eta Euskal Herria eta euskara dauden egoeran egonik. Bazirudien fruitu politak emanak dituztela Lore Jokoek eta antzekoek, baina Ameriketara doa horien emaitzarik gorena. Horrelako galerak beti badira handiak, zeresanik ez kinka larrian dagoen herri txiki batentzat.

Jendearen lehen beldur eta kezka haiek berretsi egiten dira lehen momentuan. Bi urte luze egingo ditu Pello Marik Argentinan bertso-rik plazaratu gabe. Denbora behar baitu egoera berrira egokitzeak, familiarekin batera. Denbora, barruari buelta emateko.

Baina, hara non, 1900ean, punta-puntako hiru bertso-sail plazaratuko dituen Argentinako zizurkildarrak: "Lagundurikan denoi", "Zazpiak bat" ["Zazpi aizparen gai dan oiala / ebakirikan erditik"] eta "Amerikako Panpetan" ["Euskal-Erriko lur maite artan / jai o nintzan baserriyan, itzal aundiko intxaur arbol bat / dago gure atariyan"].

Hiru bertso-sail horiek –"oik (ere) nola diran bire luzian korritzen duten zubiyak"– berehala etorriko dira itsasoz hona, 1889an osaba Joxe Bernardori bertsoz idatzitako gutun hura etorri zen bezala. Eta, bertso-sail

horiek, "Mutil koskor bat" eta "Txepetxa" sailekin batera, aparteko tokia hartuko dute herri-oroimenaren antologian, betiko. Bost bertso-sail horietan dago laburbilduta Pello Mariren emaitza loratua, aldi berean bertso herrikoi eta goi-mailako herri-poesia.

Bitartean, alaba Maria Teresa jaio zen, 1899an. Eta urte batzuk geroago munduratuko dira Juanita, 1903an, eta Malentxo, 1907an.

Aldi berean, bertso eta bertso-sail berriak ere sortzen ditu Pello Marik. Pixkana-pixkana gorputz hartuz doa bere *Oroimena* eskuizkribua. Eta *Alkar* liburua plazaratuko du, 1904ean, ordu arteko lanik onenak bilduz. Eta, hori guztia nahikoa ez eta, bi operaren letrak ere egingo ditu: "Artzaimutilla" eta "Lora" operenak, nahiz eta lehenengoa soilik hornitu musikaz Felix Ortiz y San Pelayo azpeitiarrak eta hori bakarra estreinatu, Buenos Airesen, 1900ean.

Uzta oparo hori utzita joango da mundu honetatik Pello Mari, 1910eko maiatzaren 7an, gazterik, artean berrogeita hamahiru urte zituela, "buru-lanerako sasoirik onen-onenean", Antonio Zavalak dioen bezala. Alferrik izan dira itsasoz hemendik egindako ahaleginak, "Atoz, Pedro Mari" esanez eginak. Bete gabe gelditu da haren amets itxaropentsu hura ere: "joan nai det ostera / Euskal-lurreko arbolpe [intxaur] artan / nere ezurrak uztera".

Haren hezurak Argentinan gelditu ziren: lehenik Rosarion, hiri hartan hil baitzen; eta gero, La Platan, etxekoek bertara eramanda. Hilobi hartara joango dira biltzen gero Malen alargunaren gorpua, 1934an, eta Malentxo, Joxetxo, Maria Teresa eta Juanita seme-alabenak ere, 1977an, 1982an, 1989an eta 1998an, hurrenez hurren.

Pello Mari Otañoren hil-berriak oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian, "oik (hil-berriak) nola diran bire luzian korritzen duten zubiyak", Eta hara non egia bihur daitekeen Pasaiako "oraindik anbat gerta liteke juntatutzia gu biak" amets sinesgaitz hura. Izan ere, Pello Mariren oihartzuna, itzaliz joan ordez, gero eta sakonagoa izango da herri-oroimenean, oroitzapen bizi eta bizigarri. Argentinan geratu da haren *Oroimena* eskuizkribua, familiakoek "El libro atado" izenez ezagutuko dutena. Baina aske eta ahoz aho dabilta Euskal Herrian haren bertsoak, kantu ozen eta gozamen. Eskuz esku haren bi liburuak, kantu isil eta

harridura. Leku kuttuna izango du zizurkildarrak herri-oroimenean. Euskal Herriaren kultura-ondare eta ondare berriaren eragile izango da.

Denbora beharko da, ordea, horretarako. Izan ere, oraindik XX. mendearen hasieran gaude. Eta, XX. mendearen hasieran, krisi latz batek jotzen du euskararen mundua: garbizalekeriak. Ikuspegi horren arabera, kutsatuta dago euskara, idatziz nahiz ahoz egiten dena. Kutsatuta dago, batik bat, herriaren euskara. Derrigorrezkoa da euskara mordoiloa garbitzea, agian bertsolarien euskara bera lehenengo dela.

Giro horretan, etorkizun urria du bertsolaritzak. Ez du merezi lehiaketak eta bertso-txapelketak eratzen jarraitzea. Amaitu dira Lore Jokoak eta antzekoak. Bide berriak asmatu behar dira.

Eskerrak bertsolariek eta herri xeheak kantatzen jarraituko duten plaza, taberna eta sagardotegietan. Bat-bateko bertsoak sortzen eta, era berean, Pello Marik jarritako bertsoak gogoratzen eta zabaltzen.

Eskerrak, aldi berean, euskal kultura-eragileak ez dauden lotan. Eta 1918an sortzen duten Eusko Ikaskuntza, Oñatin. Eta, hain zuzen, Eusko Ikaskuntzaren lehenengo biltzarrean sortzen den Euskaltzaindia, urte berean. Eta hari beretik, eta besteak beste, Euskaltzaleak elkartea jaiotzen den, 1928an, Donostian, euskal prentsa sustatu eta euskara eta euskal literatura hedatzeko.

Testuinguru horretan, aipagarriak dira bi gizon esanguratsu, biak apaiz, izaeraz oso ezberdin: Manuel Lekuona, oiartzuarra, eta Joseba Ariztimuño "Aitzol", tolosarra. Munta handikoa izango da horien eragina da euskararentzat.

Ezaguna da Manuel Lekuonak bertsolaritzaren inguruan egindako lana: "La métrica vasca" hitzaldia (1918), "La poesía popular vasca" hitzaldia (1930) eta *Literatura oral euskérica* liburua (1935). Eta gogoan izatekoa lan horren xedea: klase kultuak eta garbizalekeriak bertsolaritzari ukatzen dion prestigioa itzultzea.

Aitzol, berriz, buru-belarri dabil sartuta Euskal Herriaren, euskararen eta euskal kulturaren berpizkundearekin zerikusi duten mugimendu eta ekimenetan. Besteak beste, Euskaltzaleak elkarteko buru izanik, euskal prentsa sustatzen eta euskara eta euskal literatura hedatze-ahaleginetan.

Lan eta egitasmo horiek pixkana-pixkana aurkitu eta urratuko dute aurrerabidea. Langileak behar ditu euskal gizarteak. Eragileak behar ditu

euskal kulturak. Eta, zerbaiten premia badute, izar gidarien premia dute euskararen langileek eta eragileek. Ilunpean urrunetik dei egin eta, aldi berean, gida eta eredu izango diren izarrek behar dituzte.

Hain zuzen, Otañoren *Alkar* liburua berrargitaratzen da 1930ean, Aitzolen hitzaurrearekin eta, seguruenik, Aitzolek berak eraginda, Euskaltzaleak elkartearen baitan. "Liburu onek mesede ederra egin zuan Euskal-Erriari Pedro Mariren bertsoak berriro plazaratzearekin", dio Antonio Zavalak.

Aitzolek, bestalde, Orixeri ematen dio poema nazionala idazteko enkargua. Izan dezala Euskal Herriak ere bere poema nazionala, beste herriek ere baduten bezala. Orixek 1935erako amaitua du *Euskaldunak* eta orduan idazten du hitzaurrea. Eta hitzaurrean nor aipatuko eta Pello Mari Otaño: "[Nik] Aspaldi bertsuari utzia ta, lenbiziko atalean edo kantuan latzagoa atera zait, eta askotxo aldatu bear ta, bere ortan utzi dut. Gure erriak maite du bertso biribila. Pello Mari Otaño burura zait". Lizardi ere aipatzen du Orixek, baina ez *Euskaldunak* egiteko eredu izan duelako. Eredu eta erreferente, Pello Mari Otaño izan du eta honen bertso biribila, herriak hain maite duena. Orixek eskuar izango zituen *Alkar* liburuko bertsoak eta, seguruenik, "Artzai-mutilla" opera ere bai. Eta, hain zuzen, poemaren VII. kantuan, "Denok bat" ("Seirak bat") izenekoan, zizurkildarraren "Zazpiak bat" bertso-saileko hiru lehen bertsoak txertatzen ditu. Artista onek badute izarren berri.

Aitzolek, gainera, "Euskal jaiak", "Euskeraren Egunak" eta "Olerti Egunak" eratzen ditu euskal pizkundeari eragiteko. Baina poesia kultuak huts egiten du zeregin horretan, Lore Jokoetan leiendek huts egin zuten bezala. Horregatik, Aitzolek nahikoa izango du Manuel Lekuonaren hitz erdia, lehen "Olerti Egunak" bezala orain "Bertsolari Egunak" eratzeko.

Eta horra hor, berriro ere –Zavalaren hitzak erabiliz– "klase kultua" bertsolaritza helburu kulturalen-eta zerbitzuan baliatuz, Jose Manterolak foruak galdu berritan erabili zuen bezala. Orain, ordea, horretarako, beharrezkoa izango da, lehenik, bertsolaritza balio handikotzat jotzea eta, ondoren, bertsolaritza hori promovitu, horren aldeko giroa piztu, tabernatik antzokira eraman, arlote-mailatik atera. Horrela lortuko da herri-olerkigintzaren bidez herriaren espiritua erakustea; ahozko literatura baliatuz poesia kultua egitea.

Eta 1935eko San Sebastian egunez ospatzen da Donostian lehen Bertsoari Eguna, Basarri txapeldun izendatuko duena. Orduan plazaratzen da Basarri bertsolari handia. Aro berri bat hastera doa bertsolaritzaren historian, Basarriren eskutik. Azken batean, egitasmo bat dago Basarriren bertsogintzaren atzean. Ingurugirotik jaso eta bereganatzen duen proiektua. Urtebete geroago, 1936ko urtarrilean dator bigarren Bertsoari Eguna, Txirrita –hirurogeita hamasei urteko Txirrita– txapeldun izendatuko duena. Pello Mari, bizi izatera, hirurogeita hemeretzi urte betetzear egongo zatekeen.

Gerrateak eten zuen giro itzaropentsu hura. Eta, beste askoren artean, Aitzol bera hil. Gerraondo latza etorriko da ondoren. Baina ez da horren erraz hiltzen herri baten arnasa. Eta, gerratik itzulita, bere proiektua hezurramitzen saiatuko da Basarri, Manuel Uztapide lagun duela.

Gerraondo latz hartakoa ez da girorik egokiena inolako kultura-egitasmoa garatzeko. Baina herria bertso-egarriz dago. Eta Basarrik argi ditu helburuak. Eta badu bertso-laguna ere. Are gehiago, badu bertsolari eredu ere: Pello Mari Otaño. Hauxe izango du izar eta erreferente. Horren bertso jaso izango du gidari saioz saio. Eta, Basarrik ez ezik, baita Uztapidek ere. Halaxe dio Juan Mari Lekuonak:

Gerraurrean eta gerraostean, bertso-zaleek buruz ikasten dute Otaño, eta erreferentzia klasikotzat hartzen. Eta, nabarmenago dena, Basarrik eta Uztapidek eredutzat hartzen dute Otaño, jantzia delako, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa. Geroztik Amuriza etorri arte, behar bada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan.

Bertsolari-txapelketetaraino iritsiko da Pello Mari Otañoaren itzala. Euskaltzaindiak antolatutako lehen txapelketetan, bakarkako –kartzelako– zenbait gaitan sumatzen da hark landutako gaien oihartzuna. Bestalde, ezaguna da nola kantatu zuen Uztapidek, 1962ko txapelketan, Alfonso Irigoienek bertsolarientzat santu patroiz bat aukeratzea eskatu ondoren: “nere partetik Pedro Maria / Otaño izan dedilla”. Bitartean, San Frantzisko Asiskoa aukeratuko du Basarrik patroiz.

Lehentxeago, 1959. urtean, hirugarren aldiz plazaratzen da *Alkar*, Zarautzen, baina *Pedro Mari Otañoren bertsoak* izenburuaz, Itxaropena argitaletxearen Kuliska Sortaren 31. eta 32. zenbakiak osatuz. Oraingo honetan, Imanol Unzurrunzagarena da hitzaurrea. Orduan, 1959an, euskal kulturaren eremuan oraindik ere nabarmena da gerraosteko lehortea. Pixkana-pixkana ari dira euskal liburuak plazaratzen; besteak beste, Itxaropena argitaletxearen nagusi Patxi Unzurrunzagari esker. Eta honek, hain zuzen, seme Imanoli –orduan frantziskotarra zenari– eskatzen dio *Alkar* liburua berrargitaratzeko presta dezan. Berriro ere, gerra-aurrean bezala, Pello Mari Otaño euskal kulturaren eragile.

Liburu hori dela-eta, honela dio Koldo Mitxelenak:

Lehen Buenos Airesen (1904) eta gero Donostian (1930) argitaratuak nekez aurkitzen direnez gero, jakina da erostun eta irakurle ugari izango dituela oraingo liburuak. Bertsolarienganako joera zaharra ez da batere gutxitu gure herrian: ikasiagoak ere bertsozaletu egin direla, besterik ez. Eta Gipuzkoako bertsolarien artean baten izena ezaguna baldin bada, Pello Mari Otañorena da, noski. Urteek ez dute denik gutxiena ere haren ospea ixildu.

Hitzak 1959koak dira.

Baina txapelketa nagusien artean, 1980koa izango da gogoangarrienetakoa: azken saioan, bertan izan baitziren Pello Mariren alaba Maria Teresa eta honen alaba Magdalena Moujan “Beltxa”. Eta Maria Teresak hitz egin ere baitzuen, sariak emateko orduan, erdaraz aritu behar izan bazuen ere.

XX. mende azkenera iritsita, ordea, oraindik egin gabe dago Otañoren biografia eta bertsoen bilketa osoa. Azkenean, 1993an burutuko du amets hori Antonio Zavalak, bi liburuki handi plazaratuz: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua* (I eta II). Urte eta erdi buru-belarri lanean aritu ondoren hezurramitzen du lan bikaina, lehendik bildutako materiala ordenatuz eta artxibo zaharrak miatuz. Baina, lan bikaina egin eta plazaratu ez ezik, lan horren hutsuneak ere salatzen ditu tolosarrak, norbaitek noizbait osatu eta biribildu nahiko balu.



Hain zuzen, Pedro Mari Otañori eskainitako obra honekin koroatzen du Zavalak, 1993an, Auspoa egitasmo oinarrizko bezain erraldoiaren baitan, bertsolarien biografien sail oparoa: 1961ean hasi zuen Ramon Artolaren biografiarekin eta guztira ehunetik gora biografiak osatzen dute. Eta obra honetan ere, beste aurrekoetan bezala, arreta eta maitasun handiz jasotzen du tolosarrak ahotik ahorako tradizioa. Besteak beste, behin eta berriro aurkituko ditugu obran hiru zizurkildar hizketa bizian nahiz kantu gozoan: Teodoro Mujika eta Adunibar errotako Serapio eta Inazio Mendizabal. Eta biografiarekin batera datoz Pello Mariren bertso guztiak, hainbat xehetasun, zehaztasun eta datu jakingarri bezain zehatzez hornituak.

Beraz, neurri batean behintzat, Pello Mari Otañori eskainitako lana dago Antonio Zavalaren obraren amaieran. Baina, amaieran ez ezik, Pello Mari Otaño bera dago Zavalaren egitasmoaren hasieran ere. Argi eta ozen dio Antoniok berak:

Loiolan sartu eta denbora asko igaro zan Otañotarren oroipenik berritu ere gabe. Baiña andik zazpi bat urtera, 1952-an, Burgos probintziaren ipar aldeko Oña izeneko errian ikasketak egiten ari giñala, gure euskal liburutegian antxe arkitu nuan *Alkar* izeneko liburu bat. Zer izango eta bertsoak. Norenak eta *Otaño'tar Pedro M'ren Olerki Onenak*. Nere buruan itzulpena egin eta *Pedro Maria Otañoren bertsoak* irakurri nuanean, gustorago gelditu nintzan. Orduan ulertu, alegia, bera zala aur-denboran entzuten nuan zizurkildar bertsolaria.

Irakurtzen asi eta nere gozarena! Uraxe zala euskera [artean oraindik indarra zuen garbizalekeriak], eta aiek bertsoak! Denbora berean, ura zan, gorputzez Gaztelako txoko batean nengoala, buruaren barruan Zizurkil eta Adunako parajeak bertan banengo bezela bizi-bizi ikustea!

Andik bereala, etxekoei enkargu berezi bat eman nien: Tolosako Zerkausira bertso-saltzailleren bat agertzen bazan, paper bat erosi eta bialtzeko faborez. Ala egin zuten eta ale batzuen jabe egiten asi nintzan.

Era ortan, Otañoren liburua zala eta etxetik bialdutako bertso-paperak zirala, batere uste gabean, bertso-biltzeari ekin nion. Sarritan orrela gertatzen da: geren bizitzako erabakirik garrantzizkoenak ia oartu gabe eta nola ez dakigula artzen ditugu.

Eta Zavalaren obrarekin dena esana dagoela ematen duenean, beste bi lan plazaratuko dira, biak Zizurkilen ondu eta mamituak: Teodoro Mujikaren *Errekaldeko intxaurraren itzala*, 1996an, eta Hernadorena Kultur Taldearen *Oroimena. Pello Mari Otañoren arnasa (1857-1010)*, 2010ean, Pello Mariren heriotzaren mendeurrenean.

Teodoro Mujikarena, kantu polit bezain xarmangarria da: Zizurkili eta Pello Mariren habiari bihotzez eginiko kantu maitagarria. Hor daude, gure elizetako erretauletan bezala, Pello Marik Zizurkilen ezagututako hainbat gizaki, zein baino zein biziago eta gertuago: Joxe Bernardo, Juan Joxe Ugarte, Pello Errota...; nork bere giro eta ingurua eskenatoki duela: Errekalde, Karidadeko Benta, Iragorri, Adunibar...; Zizurkil, Aduna, Asteasu...; Belkoain, Ernio...

Bigarren liburua, Pello Mariren bizitza eta bertsoekin batera, hura bizi izan zeneko giroa berreskuratuz dator eta hil ondorengo arrastoak arakatuz, XIX. mendeko Zizurkilen eta Donostian barrena eta XX. mendeko Argentinako xehetasunez egoki hornitu eta osatuz, batez ere Pello Mariren etxekoen testigantza beroa bezain hurbila bilduz eta gureganatuz, eta zenbait datu jakingarri eta orain arte ezezagunak ere eskainiz.

Hona hemen, Pello Mari Otaño berriro ere bizirik, taupaka haren bihotza, izerdi oparoa dariela haren sustraiak eta adarrak, arnasa betean haren hatsa.

Une batean, Pello Mari Otaño ardatz eta izar dugula, batera bilduta aurkitzen dugu berrehun urteko historia, Errekalden jaio eta Argentinan barrena ibili ondoren berreskuratu duguna: XIX. mendea, gerra karlistak, emigrazioa, gerra-aurea, gerra zibila, gerraondo... Ez da eten berrehun urte baino gehiago dituen kate zahar bezain sendoa.

Eta, kate luze horretan, distiratsu ageri zaigu Pello Mari Otaño. Zizurkilen punta-puntako bertsolari eginiko gaztea. Donostian herri-poesia goi-mailara eramán zuena, XIX. mendearen amaieran, Lore Jokoen-eta eraginez. Eta, bere bizitzaren momenturik onenean, hirugarren aldiz Argentinara joan beharren aurkitu zena, emazte eta hiru umerekin. Eta, Argentinan, bertsoak idazten jarraituz, Euskal Herriaren ondarea hornitzen segitu zuena.

Hil ondoren, handitu besterik ez zen egin haren argia. Izar distiratsu agertu zen Euskal Herriaren historiaren garai ilunetan, bigarren gerra

karlistaren ondorioz foruak galdu eta euskara indarberritu behar hartan, Lore Jokoetan-eta. Eta izar distiratsuago bihurtu zen hil ondoren, Euskal Herriko zero ilunean; "oik [izarrak] nola diran bire luzian korritzen duten zubiyak. Izar hura izan zuten gidari: gerra-aurrean, Aitzolek eta Orixek-eta; gerraondoan, Basarrik, Uztapidek eta Antonio Zavalak-eta.

Eta gaur, Pello Mariren heriotzaren mendeurrenean, hura Zizurkilgo seme kutun izendatzean, izan zen bertsolaria, herri-poeta eta kultura-sortzailea omentzen dugu, eta izan den eta den kultura-eragilea eta erreferentea aho betean goraiatzeko. Eta, jaioterriaren omena eta goraiamena ez ezik, Euskal Herriarenak eta Argentinako euskal komunitatearenak ere eskaintzen dizkiogu, egia bihurtu baita Txirritaren eta herriaren amets itxaropentsu bezain sinesgaitz hura, "oik [izarrak] nola diran bire luzian korritzen duten zubiyak, oraindik anbat gerta liteke juntatutzia gu biyak [zu, Pello Mari, eta gu, Zizurkil, Euskal Herria, Argentina".